

## **Mendibeko segeria eta Iratiko oihana (1922-1955)**

E.: Beñat, xurekin bea ixiu aipatu beste gauza bat, beste gai bat, hori duxu Mendibeko segeria, ta hemen lotua zena Iratiri.

B.: ba.

E.: ordian, untsa konpreintu balin badut, xu sortu aitzineko urtian edo ola, landestar batzuk abiatu zixien proiektua. Orroit xirea nor ziren?

B.: ba, Pedeluc izenekoak, eta muntatzen, hori, gu sortu bano urte at leeno asi zuxun muntatzen Mendiben, eta geo, Pedeluc zuxun nausia, ta geo italianoak kableko espezialistak zitxun hek. In zixien xuxen-xuxena Mendibetik eta Iratiko ordokira kablia, mendi itsusi oitan pasatuz in zixien, pilonak bazitxun bizkar oitan ez lurra unkitzeko, eta gero karri zitxien gizonak, gizon andana atek kable puskaka tiatzen zixien ta geo lotzen bizkarka leku tzar oitan, ta leku unetan idiekin ta mandoekin tiatzen zitxien kabliak, ta geo muntatu zutelaik altxatzen, ta ala partitu zuxun, ta delako Pedeluc nausi ori, entseatzen ai zuelaik han, maxinak baitzien elektrikan kurritzen zienak ordian, eta arropetaik hartu zixin gizon ori, eta zintzirikatu, bere emaztiak ez zixin ikusi re, gizon gaztia, izigarriko gizon kapablia hola joan zuxun, gisala, guk ezautu gabe hori.

E.: justu segeria martxan ezarri zutelarik?

B.: ba, ala.

E.: mila beatzieun ta... Mila beatzieun ta hogoita bedeatzian, nik uste.

B.: ba, olako zeait. Ordian partitu... Partitzen ai zuelaik, arrapatu zixin gizon ori arropetaik, eta an bildu maxinek, hara, nik intzunak tuanak oriek.

E.: ordian, nola pasatzen zen. Oihanian bazitxun langileak.

B.: hemen bazuxun anitz langile, denak barrakak... Taulazko barrakak eta muntatu zitxien, eta kablian ekartzen zitxien taulak, eta beereko segeriatik eta iten zitxien barrakak langilendako, taulazkoak, ta ordian bazitxun, denak eskuz ordian, aizkorekin botatzen zitxien, hantik bestaldetik jiten zitxun, mutiko gaztiak eta azkarrak, arbole botatzen, ta beste atzuk mandoekin eta idiekin tira, unaano.

E.: orrek erran nai dixi kable ttipiak

B.: ba, bazitxun.

E.: ezarriak zituztela Iratitik oianeraino.

B.: oianera. Ek segonderak erten zixien, kable mehe atzu, ttipi batzu, ta hek unat bildu ta kgeo able aundian kargatzen zitxien, eta Mendiberat, amairu kilometra baziela kable

Mendibera emetik, ta bestena, nun e baitzien coupe-ak, kable ttipiak, eta hortako ezpezializtak zitxun italianoak, Moleti izenekoak, bi anaia edo iru jin zitxun antik, ta hek muntatu zitxien kable orik-eta, ta gero een semiak eta langileek or.

E.: eta Hegoaldetik heldu ziren gazte oriek guziak astearendako heldu zitxun edo zonbait ilabeterendako?

B.: uda guziko.

E.: uda guziko.

B.: elurtu artio, elurtu artio, gero joaiten zitxun, emen barrakan egoiten, bazixien beren jatekoa prestazalia, eta atsetan ilunian eldu zitxun oianetik, eta jan, eta lo in, eta geo, biamun goizian goizik, gu ohian ginelaik ono partitzen zitxun beren idiekin ta mandoekin oianian or goiti oiuka, ta ola.

E.: xaakoaikin eta...

B.: ba, xaakoa egun guziko, ba. Jatekoa eremaiten zixien ta xahakoa bazixien beren bizkarrian, ta xahako artan kullera at, ta aikilan jaten zixien beren aipairu guziak. Hek ardurenian jaten zixien, ez baitzen emen haragik kontserbatzeko maneraik, jaten zixien baba, baba idorra, ua bezperan ezarri trenpan, eta geo egosi untsa, ta hua zixien jatekoa, geo xingar edo zeait, ez baitakit zer zuten, ez baitzen emen aragik kontserbatzen. Gero muntatu zixien hemen kantina haundi bat muntatu zixien, eta an emazte batek iten zixin denendako kozina. Gero jiten zitxun eguertan, hemen ai zienak, kablian ai zienak jatera kantinaat, ta bestiak, aldiz, beti han, oianetakoek hek eremaiten zixien baba, ta hola, jatekoa.

E.: ta gero aste guzia pasatzen zixien. Igandetan ere ari zitxun lanean?

B.: aste guzia lanian, ta igande eguerditan jiten zitxun barrakaat, beren aste guziko bizarrak, eta zikinak, arropak, eta denak, luurra, loia, bere laneko arrokekin, ta eguerditako biltzen zitxun barrakaat, jan, ta iten zixien pausa, ta hantik jaiki, ta hurian, hura baitzen emen, hur aundian beren arropa guziak garbitzen zitxien, ta ezartzen idortzen, ta gero bizarrak-eta iten, iziarriko mutiko ederrak bazitxun angoak, hantik aste guzian beren bizarrekin itsusiak ta zikinak, na gero iduri zixien mutiko ederrak, beren kolore gorri-gorria, ta azkarrak, jiten zitxun gure kusteaa, elaka artzea gurekin. Ikustea jiten zitxun, gu ardi deizten ta ari baiginen, nola ari... artzen ginen, eta olaxe, hangoak, eskualdunak, bestaldekoak, orik, mutiko orik, igande atsaldetan, eh! Gu atseko ardi deizten ta ai ginelaik, ta berriz geo barrakaa joan, eta an lo iten zixien, jan ta lo in, ta biamun goizian berriz parti lanea, ara.

E.: eta zonbat langile zen ordian?

B.: bo, anitz, anitz, nik ez xit bein e jakin, bena anitz, anitz bazuxun.

E.: aipatzen dixie berreun bat langile bazela oian oritan.

B.: ba, ba. Ba, ba, anitz bazuxun, ez baitzen oai bezalako tronçonneuse-aik-eta, eskuz zitxun denak, arpana, trentxa-sega ta aizkorekin, batzuk aizkorekin in uzkia, ta bestek motz, eta bear zitxien bota arboliak, abar guziak kendu aizkorekin, ta ola.

E.: eta gero, beraz, trunko horiek guziak...

B.: trunko oriek mandoekin ta idiekin tiratzen beeiti, hemen hurbil zienak hunaano, ta bestañez, kable ttipiak baitzien, heetara, han bazitxien kargatzeko lekiak, mandoekin-ta tira, ta hantik unat, ordokira, jiten zitxun.

E.: gero hemen bazitxun ere langile batzu.

B.: emen beste langile andana at, ba, hortaz okupatzen zienak, ba.

E.: eta kable haundiarekin gero beheiti igortzen. Nola pasatzen zen or, aipatu uxu hamairu kilometra bazela...

B.: ba, ez baitakit, hemen bazixien beren... Karga zartzen zixien bi charrette-etan, kargatuik, eta geo aitzineko karga hantxe, bixkarretan itzaltzen zelaik, bestia partitzen zixien, bazixien beren... Ez zixien sobera usu re igorri bear, bazixien bere... Ez baitakit zer zen, bosteun bat metra edo geio, edo kilometra at, mentuaz, ortxe, azken karga itzaltzen zelaik, bestia partitzen zixien geo, ta gero bidian bazitxun partida, ta hor beste estazione atzu, iziarriko zutian joaiten baitzen zonbait lekutan kablia, han bear zixien, kargak tiatzen baitzien sobera fite, bear zixien arrasta eman ez sobera anbalatzeko, bestañez, erortzen zitxun kargak, bakarrenak batxu eroriak bidian.

E.: izan duxu istripurik, eta xure orroitian?

B.: jendetan ez, ez, jendetan ez, bena kargak ba, bide ortan bazitxun nunai trungoak eroriak, eta biltzen zitxien charriot-a ek mandoekin tiraka bidera, ta egurrak han berian usteltzen, ta olaxe.

E.: eta gero egur trunko oriek guziak Mendiberaaino heltzen zitxun?

B.: ah ba, ba.

E.: eta gero bazuxun han ere beste langile andana bat pentsatzen dixit.

B.: ba, ba, anitz langile, anitz sega bazitxun, anitz sega, ta segeria, ta espalakoin, eta zernai iten zixien ordian, bazitxun espalakoin iten e artzen zienak: moztu izarian, ba izari guzitaik, ta geo bazuxun maxinekin barniak ateatzen, espalakoinak, eta hola.

E.: or inguruko Mendibeko inguruko langileak zitxun ala kanpotik jinak ere ainitz?

B.: Mendibekoak e bazitxun anitzak, libro zienak, artzen zienak, bana bestañez denak nunbaitik jinak, urrunekoak, denak urrunekoak.

E.: eta egur trunco haundienak igorriak zitxun or burdin treinen, trein-burdinen egiteko, ta...

B.: segatzen zitxien leenik, eta geo trebesak iten treinetako railien pian zartzeko, trebesak anitz in dixie, ta muntatu zixien olako railletan tren ttipi bat, Donianeko garatik eta Mendiberat, pasten zuxun or, pentzez pentze, ta ola. Hek kargatu ta eremaiten zitxien ta kargatzen Donianeko garan trein aundi at kargatzen zuxun oriekin, beere oitaat saltzeko.

E.: eta bizi berezi bat bazuxun Mendiben onbeste langileekin, eta...

B.: ba.

E.: lana bazuxun asteko.

B.: lana bazuxun, emen e libro zienak etxetan... Etxetan lanen iteko libro zienak artzen zitxun or, lanian, ta geo kanpotiar anitz, geo bazuxun beste alako moretitiar oriek, bazuxun baño akordeonista re, ta igande guziz iten zixien soñia Mendiben, eta ara. Gero apeza kexatzen! Apeza kexatzen, ordian ez zixin maite apezak hor, herriko gaztiak-eta han, ta emen e ez baitzen beste atetzeko maneraik, haat joaiten gaztiak eta re, ta apeza gaixoa oiuka, geo predikian ai elizatik, eta ola, ez zela joan bear, hara.

E.: eta ziek ere joaiten zinezten pixka at? Besta orietarat eta...

B.: ba, ba, libro ginelaik joaiten gintxun ba puxka at, so itea.

E.: zonbat urtez ai izan da segeria? Zenbat urtez ibili da?

B.: ba, badakita nik? Berroita amar bat urtez, edo ez dakit, nik ez baitut balio, anitz urtez ai izan duxu ori emen.

E.: Pedelucen familiarekin zortzi-amar urtez, ez gehiago.

B.: ba, gero kanbiatzen zitxun nausiak, nausiak kanbiatzen zitxun geo. Pedelucek... Pedelucen emaztia ta hiru aur bazitxin, Pedeluc horrek, ez xit uste oriek okupatu zien geo segeriaz, beste noaitek artu zixin segida geo doaike, Pedeluc hiltziaekin.

E.: eta gerla denboran, mila bedeatzieun eta berrogoian, ez zena belgikano bat edo etorri?

B.: eh, ori, Perrot izeneko bat, ba, hua ez zuxun segeriako... Direktor gisa sartu zuxun orra, alegia, hak dirigeatzen, bena ua beste gisa zuxun alemanak ta emen zieldaik, alemanak emen zieldaik, jendiak pasten zitxin anitz belgikano, ta pasten zitxin haat, Españaat, ez naiz Alemaniako zerek, hek partidak baitzuzten, Hitlerrek, doaike, ez naiz aat zertu, Españaat espakatzen zitxun, ta egun batez salatua izan zuxun doaike gizon ori, ta egun batez joaiten txu bizpalau edo bost, ez diakixut xuxen zonbat zien, haat, segeriako bulegoat, ta Perrot bera

bortara jiten duxu, hek bortan, ta galditen dixie: “est-ce que monsieur Perrot est là?”, ta “ba, il doit être par là”, ta bera zuxun, joaiten duxu berriz giilea: “je vais l’appeler”, bera joaiten duxu gileat, eta antik gileko bortatik atea, ta espakatu zuxun bera, ezautu zixin nor xekatzen zuten, ta bera zuxun Perrot, ta jin zuxun, puska atian, hek beha han zien denboran, puska atian jiteko, ta hur aundian sartu zuxun, oai Iratiratekoan eldu den ori, Laurhibar baita hor ura, hurez ur puska atian, zakurrak eman baluzte, partitzian, errestoa arrapatuko zixien, ta hurian galtzen ziela, jin zuxun hurez ur, ta jin zuxun, artzain xaar bat bera egoiten baitzen borda atian, ta ua zaauna zixin, harengana, ta erran zixin nola espakatu zen, ta bazinez zeit harripe edo gordagia, sekula alemanak ikertzen bazuten hain etxolak, eta ez zixin nai han egon, harripe artan, jatekoak hak eremaiten ziakoxun, alegia, kaaletan ibiltzen ua, ta jateko an zonbait egunez, prestatu artio bere familiaekin hitzartuik, eta hementik joan zuxun geo aat, Españaat, ta hantik joan zuxun geo Belgikaat, edo ez diakixut noat pastu zen, hola.

E.: ta gero beste norbaitek ibili xixi segeria ori.

B.: gero ba, bulta atez, gero berriz gelditu zuxun, bulta atez.

E.: emeki-emeki oianian gero ta arbole gutiago baitzen!

B.: ez zuxun... Arbolia bazuxun. Geoztik ai txu kamionez oai beti, bena ordian, ez baitakit nik, konpañia orrek ez zixin... Ez zixin artzen aal doaike, ara, nik dazkitanak.

E.: Erraiten duxu, beraz, gutxi gorabehera berrogoi bat urtez ibili dela.

B.: ba, nik ez baitut bu atxikitzeke. Ba, ba, olako zeit, ba.

E.: xuk etxola hartu duxularik hemen, mila bedeatzieun ta hiutan oita bostian, gelditia zuxun aspaldian, segeria.

B.: ba, ordian, ba, ordian gelditu berria, ba. Ai zitxun gauzak biltzen or, puskak bitlzen-ta. Ba, ordian gelditu zuxun ba ni hunat jin beno aitzineko urtian edo ola.

E.: ta ze bilakatu dira hemengo tresneriak, eta Iratin ziren bastimendu ta horiek denak desegin txie.

B.: ba hori taulazkoak zitxun orik denak, dena desin. Hor Pedrok bildu zitxin anitz, taulak, barrakak desin, ta han bildu, ta han hak baliatu zitxun, hak ez bitzien deus e uztekoik. Zautu uxia xuk ua? Ez.

E.: eta Mendiben, Mendibeko segeria ta ze bilakatu dira?

B.: hori ez baitakit ze in dien anbeste sega ta, saldu dizketxie noapait.

E.: saldu dizketxie.

B.: okasionian beste segeria zonbaitetaat, edo anitz gauza baitzen or, hor denak bazitxun aozgoak, eta xarpanterak eta denak, aotzak, eta burdinak eta denak lantzen zitxien or.

E.: eta hor ari zen... Jendia hor lanian ari baitzen, ze bilakatu da? Herria hustu duxu?

B.: beste noapait joan. Ba, ba, langile oik joan zitxun ba denak, urruneko orik, joan zitxun ba denak beren lekutaat, edo beste noapait, ta hemen herrikoak lanian ai zienak emen berian, etxetan, eta beste gisan lanian, ola.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala